TOLOSAKO UDALA

| TOLOSAKO UDALEKO BERDINTASUN DEPARTAMENTUAREN DIRU LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA | ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD |
|---|---|
| **SARRERA**<br>Ordenantza honen helburua da Tolosako udalerrirako diru-laguntzen araudia jartzea. Tolosako Berdintasun departamentuarekin batera lan egiten duten bertako irabazi xederik ez duten elkarteei nahiz pertsona fisiko edo juridikoei, norgehiagokako erregimen bidez emango zaizkien diru laguntzak zein baldintzatan eskatu eta jaso ahal izango diren zehazten duen araudia da. | **INTRODUCCIÓN**<br>El objetivo de esta ordenanza es establecer una normativa para solicitar y conceder, por el procedimiento de concurrencia competitiva, las subvenciones del 2016 a asociaciones locales sin ánimo de lucro y personas físicas o jurídicas que desarrollan su labor en colaboración con el área de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa. |
| **ARAUDIA**<br>**Lehenengoa.** Helburu orokorra<br>Deialdi honen helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten programak, ekintzak eta jarduerak sustatzea da, Tolosako politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizarte esparru guztietan.<br>Informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzeko balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea. | **NORMATIVA**<br>**Primera:** Objetivo general<br>El objetivo de la convocatoria es promover programas, actos y actividades para la consecución de la igualdad de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica y social de Tolosa.<br><br>Apoyar acciones de información, sensibilización, concienciación social y reeducación en valores, actitudes y en definitiva, la transformación de los modelos sociales. |
| **Bigarrena:** Hartzaileak/Pertsona onuradunak<br>Tolosan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakunde guztiek eskatu eta jaso ahal izango dituzte diru laguntza hauek, beti ere Tolosako udalerrian egoitza edo ordezkaritza iraunkorra duten pertsona edo elkarteak diren heinean. Diru laguntzen onuradun izateko, elkarte eta fundazioek dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute.<br>Halaber, diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte pertsona fisiko edo juridikoak, nahiz publiko edo pribatuak | **Segunda:** Personas o entidades destinatarias/beneficiarias.<br><br>Estas subvenciones podrán ser solicitadas y concedidas a entidades sin ánimo de lucro que desarrollen sus actividades en Tolosa, siempre y cuando sean personas o asociaciones que tengan su residencia o su representación permanente esté situada en Tolosa. Para percibir la subvención las asociaciones o fundaciones deberán estar inscritas en el registro oficial que les corresponda.<br>También podrán solicitar las subvenciones |

| | |
|---|---|
| izan, jarduerak zehatzak egiten badituzte.<br>Era berean, Tolosatik kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte diru laguntzak, hain zuzen ere bere jardueren zati nabarmen bat udalerriaren barruan garatzen bada edo udalerriarentzat interesgarri jotzen bada.<br>Baldintza hauek betetzeaz gain, emakume eta gizonen arteko berdintasuna alorrean lan egin beharko dute. | las personas físicas o jurídicas, tanto públicas como privadas, que realicen actividades concretas.<br>Así mismo, también podrán concederse las subvenciones en el caso de que una parte importante de su actividad se lleve a cabo dentro del municipio o de que la misma sea considerada de interés para el municipio.<br>Además de cumplir estos requisitos, deberán trabajar en el ámbito de la igualdad entre mujeres y hombres. |
| **Hirugarrena:** Diruz lagundu daitezkeen gastuak<br>Programak, ekintzak eta jarduera horiek duten proiekzio eta interesagatik bat etorriko dira Berdintasun Departamentuaren politikarekin, eta honako zeregin hauetarako erabiliko dira:<br>a) Urtean burutako edo burutuko diren jarduera jakinak aurrera ateratzeko.<br>b) Elkartearen funtzionamendurako.<br>c) Eskaria egin duen erakundeko mantenu gastuak ordaintzeko, besteak beste: bulego materiala, bulegoko tresneria eta abar. | **Tercera:** Gastos subvencionables<br>Dada proyección y el interés de dichos programas, acciones y actividades, serán acordes a la política del Departamento de Igualdad y se utilizarán para las siguientes funciones:<br>a) Actividades concretas que se han desarrollado o que se van a desarrollar en el año.<br>b) El funcionamiento de la entidad.<br>c) Financiación de los gastos de mantenimiento de la entidad solicitante. Entre otros: material o equipamiento de oficina, etc... |
| **Laugarrena:** Diruz lagundu daitezkeen jarduerak<br>a) Emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzen laguntzea.<br>b) Emakumeen elkarte-sarea zein mugimendu feminista sendotzea.<br>c) Emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboen alde egitea.<br>d) Emakumeen ahalduntze pertsonala, soziopolitikoa eta ekonomikoa sustatzeko jarduerak.<br>e) Emakumeak esparru soziopolitikoan, kulturalean, zientzian eta bestelako alorretan jarduteko ekintzak.<br>f) Genero-arloko rol eta estereotipoez nahiz horiek esparru pribatu eta | **Cuarta:** Actividades subvencionables<br>a) La contribución a la mejora de las condiciones y posiciones de las mujeres.<br>b) El fortalecimiento del tejido asociativo de mujeres y del movimiento feminista.<br>c) La defensa de los derechos individuales y colectivos de las mujeres.<br>d) Actividades para promover el empoderamiento personal, sociopolítico y económico de las mujeres.<br>e) Actividades que propicien la actuación de las mujeres en los ámbitos sociopolítico, cultural, científico y en otros |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| publikoan emakumeen zein gizonezkoen bizitzan duten eraginaz informatu eta sentsibilizatzeko jarduerak.<br>g) Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazio-, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak.<br>h) Etxeko lanetan eta zainketa-arlokoetan erantzukizunen banaketa sustatzeko jarduerak.<br>i) Gizataldeak eta profesionalak emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean prestatzera bideratutako jarduerak.<br>j) Udalerrikoak ez diren emakume-taldeekin informazioaren eta esperientzien trukea errazten duten jarduerak.<br>k) Emakume etorkinak ahalduntzea eta euren eskubideak aldarrikatzea sustatzen duten jarduerak.<br><br>**Bosgarrena:** Diru-laguntzarako irizpideak<br>1.- Diru laguntzak esleitzeko ondorengo puntuak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera doazen programazio-fitxetan egiaztatu beharko dira:<br>1.1.- Proposamenaren kalitatea ......... ………………………….. 15<br>1.1.2.- Egitasmoaren helburuak, metodologia eta partaideen formakuntza ………………………………………………. 8<br>1.1.3.- Elkarteen helburuak ……………………………… 7<br>1.2.- Emakumeen partaidetza, ikusgarritasuna eta jabekuntza sustatzea ........................................... ……………….. 55<br>1.2.1.- Elkartearen bazkide emakumeen kopurua ……. 10<br>1.2.2.- Kolektibo espezifikoak ………………………. 10<br>1.2.3.- Egitasmoak gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna | ámbitos sociales.<br>f) Actividades donde se informa y sensibiliza sobre el impacto de los roles y los estereotipos de género en la vida de las mujeres y hombres en los ámbitos público y privado.<br>g) Actividades que informen, sensibilicen, y prevengan la violencia contra las mujeres.<br>h) Actividades que fomentan el reparto equitativo de las tareas domésticas y de los cuidados.<br>i) Para que los colectivos sociales y profesionales se formen en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres.<br>j) Actividades que faciliten el intercambio de información y experiencias con colectivos de mujeres que no sean del municipio.<br>k) Actividades que empoderen a las mujeres inmigrantes y las impulse a reivindicar sus derechos.<br><br>**Quinta:** Criterios para la subvención<br><br>1.- Para la concesión de la subvención se tendrán en cuenta los siguientes puntos, que deberán ser acreditados en las fichas de programación que se adjuntan al impreso de solicitud:<br>1.1.- Calidad de la propuesta......... ………………………….. 15<br>1.1.2.- Objetivos de proyecto, metodología y formación de las personas participantes ………………………………………………. 8<br>1.1.3.- Objetivos de las asociaciones ……………………………… 7<br>1.2.- Fomento de la participación, visibilización y empoderamiento de las mujeres ........................................... ……………….. 55<br>1.2.1.- Número de socias de la asociación ……. 10<br>1.2.2.- Colectivos específicos ………………………. 10 |

| | |
|---|---|
| sustapena ………………………………  10<br>1.2.4.- Proiektuen programazioan eta garapenean emakume parte hartzea islatzea ………………………………………. 25<br>1.3.- Bertako errealitatearekiko egokitasuna …………………….  15<br>1.3.1.- Herri ekintzetan dagoen parte hartze maila ……  5<br>1.3.2.- Hizkuntza normalizazio irizpideak kontuan hartu<br>izana<br>…………………………………………………….  10<br>1.4.- Emakume taldeen arteko sareak eta hartu-emanak<br>lantzea ……………………………. ………………………….  15<br>1.4.1.- Tolosako emakume taldeen arteko harremanak, sareekin elkarlana lantzea ……………………………………….  15 | 1.2.3.- Promoción por parte de proyecto de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres<br>………………………………  10<br>1.2.4.- Reflejado de la participación de las mujeres en la programación y desarrollo de los<br>proyectos………………………………………. 25<br>1.3.- Adecuación a la realidad<br>local …………………….  15<br>1.3.1.- Nivel de participación en los actos populares ……  5<br>1.3.2.- Haber tenido en cuenta los criterios de normalización lingüística.<br>…………………………………………………………. 10<br>1.4.- Promoción de redes e intercambios entre grupos de mujeres<br>……………………………. ………………………….  15<br>1.4.1.- Relaciones entre grupos de mujeres de Tolosa, trabajar la cooperación con las redes ………………………………………. 15 |
| Genero gaietan berdintasuna sustatzen duten egitasmoen artean hurrengo irizpideak ere kontuan hartuko dira ebaluatzerakoan.<br>a) Pobreziaren edo gizarte bazterkeriaren arloak sartzea.<br>b) Adinaren edo bizitza zikloaren arloak sartzea.<br>c) Sexu aukeraren arloa sartzea.<br>d) Inmigrazioaren nahiz kultura-aniztasunaren arloak sartzea.<br>e) Dibertsitate funtzionalaren arloak sartzea.<br>f) Baliabide eta metodologia berritzaileak erabiltzea.<br>g) Aurreikusitako ebaluazio-tresnak.<br>h) Ordutegia, iraupena, lekua eta datak hartzaile taldeen arabera egokitzea.<br>i) Hizkuntza normalkuntzaren irizpideak | A la hora de evaluar los proyectos que fomentan la igualdad de género, también se tendrán en cuenta los siguientes criterios:<br>a) Introducir ámbitos de pobreza y exclusión social.<br>b) Introducir ámbitos de edad y ciclos de la vida.<br>c) Introducir ámbitos de sexo.<br>d) Introducir ámbitos tanto de inmigración como de multiculturalidad.<br>e) Introducir ámbitos de diversidad funcional.<br>f) Utilizar recursos y metodología innovadora.<br>g) Previsión de instrumentos de evaluación.<br>h) Que el horario, duración, lugar y fechas |

| | |
|---|---|
| kontuan hartzea. | se adecuen en función de los grupos receptores. |
| | i) Tomar en consideración criterios de normalización lingüística. |
| Goian jasotako atalen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera ezarriz. 50 puntu gainditzen dituzten eskaerak onartuko dira eta hauen artean hainbanaketa egingo da. Diru banaketarako irizpideak. Puntuaren balorea zein izango den zehazteko, atal honetako diru-laguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da. Diru-laguntza izango da eskaera bakoitzak lortu dituen puntu guztien batura, aurreko mugak beti kontuan hartuta. | La aplicación de los apartados arriba recogidos otorgará una puntuación determinada a cada solicitud, estableciendo un orden de prelación. Se admitirán las solicitudes que superen los 50 puntos, y la distribución se realizará mediante prorrateo. Criterios para la distribución de las subvenciones. El valor del punto será el resultado de dividir el importe total de las subvenciones establecidas para este apartado entre los puntos asignados al conjunto de las solicitudes admitidas. La subvención será la suma resultante del valor de todos los puntos, teniendo en cuenta siempre los siguientes límites. |
| 2.- Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira: | 2.- Los conceptos e importes máximos que se podrán conceder en cada una de las convocatorias son los que se detallan a continuación: |
| a) URTEKO PROGRAMAZIOA | a) PROGRAMACIÓN ANUAL |
| Diruz lagunduko dira beren eguneroko jardueren eta jarduera tradizionalen bidez elkartearen helburuak lortu nahi dituzten programak eta jarduerak. | Lo serán aquellos programas y actividades que persigan a través de sus actividades cotidianas y tradicionales la consecución de los objetivos de la asociación. |
| Diru-laguntza ildo hau Elkarteen sustapena transferentzien partidari atxikiko zaio. | Esta línea de subvención se adscribe a la partida de transferencias de promoción del asociacionismo. |
| Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren kostuetako gastuen % 70 gaindituko. Kostuetan diru-sarrerak %30era iristen badira kostu osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu. | El importe de la subvención propuesto no superará el 70 % del gasto de los costos del programa o actividad. Si en los costos los ingresos llegan al 30 %, se puede llegar a financiar el 100 % del costo total. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad a desarrollar. |
| b) TALDE ETA ELKARTEEN PRESTAKUNTZA | b) FORMACIÓN DE GRUPOS Y ASOCIACIONES |
| Diruz lagunduko da taldekideak eta elkartekideak bertako kudeaketa, | Será subvencionada la asistencia por |

programazio eta jarduerekin lotutako prestakuntza eta gaitze ikastaro eta programetara joatea. Atal honetan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza jasotzeko ikastaroak hartuko dira kontuan. Diru-laguntza ildo hau taldeen eta elkarteen sustapena transferentzien partidari atxikiko zaio.

Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren kostuetako gastuen % 50 gaindituko. Kostuetan diru-sarrerak %50era iristen badira kostu osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

c) MATERIALA EROSTEA ETA BERRITZEA

Eskatzaileak bere eguneroko programak eta jarduerak burutzeko behar dituen materialen erosketak eta berritzeak izango dira.

Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren kostuetako gastuen %30 gaindituko. Kostuen diru-sarrerak %70era iristen badira kostu osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

**Seigarrena:** Eskaera egiterakoan aurkeztu behar den dokumentazioa

a) Diru laguntza eskatzeko orria beteta eta sinatuta (www.tolosakoudala.eus/dirulaguntzak).

b) Erakundearen IFZren kopia, diru-laguntza deialdi honetan eskaera egiten

parte de los/las miembros de los grupos y asociaciones a cursos de formación y capacitación sobre gestión, programación y actividades relacionadas con el ámbito de actividad de la asociación. En concreto, se tendrán en consideración los cursos de formación sobre igualdad entre mujeres y hombres.

Esta línea de subvención se adscribe a la partida de transferencias de promoción del asociacionismo.

El importe de la subvención propuesto no superará el 50 % del gasto de los costos del programa o actividad. Si en los costos los ingresos llegan al 50 %, se puede llegar a financiar el 100 % del costo total. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad a desarrollar.

c) COMPRA Y RENOVACIÓN DE MATERIAL

Lo serán aquellas compras y renovaciones de material que el/la solicitante necesite para el desarrollo de sus programas y actividades cotidianas.

El importe de la subvención propuesto no superará el 30 % del gasto de los costos del programa o actividad. Si en los costos los ingresos llegan al 70 %, se puede llegar a financiar el 100 % del costo total. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

**Sexta:** Documentación a presentar para la solicitud de subvención

a) Impreso de solicitud cumplimentado y firmado (www.tolosakoudala.net/dirulaguntzak)

den lehen aldia bada.
c) Estatutuen kopia, diru laguntza deialdi honetan eskaera egiten den lehen aldia bada.
d) Elkarteen erroldan izena emanda edukitzea egiaztatzen duen agiria.
e) Banketxeko ziurtagiria, taldearen kontu korronteko 20 zenbakiekin.
f) Urteko proiektua, urtean elkarteak aurreikusitako programa. Jardueratarako aurreikusitako gastuen eta diru sarreren aurrekontu zehatza. Honetaz gain beste erakundeetatik diru-laguntzarik eskatu edo eskuratu al den jarri beharko da, baita eskuratutako zenbatekoa ere.
g) Pertsona onuradun edo entitate laguntzailearen izaera eskuratzeko debekurik ez edukitzearen justifikazioa, Tolosako Udalaren diru laguntzen Ordenantza Orokorrak 8.5 artikuluan dioenaren arabera.
h) Zerga obligazioak egunean beteta izatearen ziurtagiria.
i) Gizarte Segurantzako obligazioak beteta izatearen ziurtagiria.

**Zazpigarrena:** Balorazio Batzorde teknikoa
Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan behar duen Batzorde tekniko bat sortuko da eskaerak aztertu eta baloratzeko eta emaitzak Berdintasun batzordera helaraziko dira eta berak diktaminatuko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, txostena egingo du, behin betiko erabakia hartzeko.
Behin betiko erabakia diru-laguntzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo 30 egun naturaleko epean jakinaraziko da.
Honekin batera atal bakoitzari emango zaion ponderazioa azalduko da Tolosako udaleko Web orrialdean: www.tolosa.eus

b) Copia del CIF de la entidad en caso de ser la primera vez que se solicita dicha subvención.
c) Copia de los estatutos en caso de ser la primera vez que se solicita dicha subvención.
d) Documento que acredite su inscripción en el Registro de Asociaciones.
e) Certificado de la entidad bancaria con los 20 dígitos de la cuenta corriente de la asociación.
f) Proyecto anual. Programa de actividades previsto para año. Presupuesto detallado de gastos e ingresos de las actividades previstas. Asimismo, deberá informar de las subvenciones que en su caso haya percibido de otros organismos, y de su importe.
g) Justificación de que no incurre en las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria o entidad colaboradora, según lo contemplado en el artículo 8.5 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.
h) Justificante de tener todas las obligaciones fiscales en regla.
i) Justificante del cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social.

**Séptima:** Comisión técnica de valoración
Se creará una comisión con representación equilibrada de mujeres y hombres para el estudio y valoración de las solicitudes. Los resultados se remitirán a la Comisión de Igualdad que será la que dictamine las prioridades y las cantidades a otorgar. A continuación, redactará un informe con la resolución definitiva, que se notificará en el plazo de 30 días naturales contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo de presentación de las solicitudes.

En la página web del Ayuntamiento de Tolosa www.tolosa.eus, se mostrará, junto

TOLOSAKO
UDALA

| | |
|---|---|
| | con este, la ponderación correspondiente a cada apartado. |
| **Bederatzigarrena:** Diru laguntzen bateragarritasuna<br>Diru laguntza hau beste batzuekin bateragarria da. Edozein kasutan, emandako diru laguntzak, onuradunak eskura ditzakeen beste diru laguntzekin batera, ezingo du egindako gastuaren kopurua gainditu. | **Novena:** Compatibilidad de las subvenciones<br>Esta subvención es compatible con otras subvenciones. En cualquier caso, la subvención concedida, junto con otras subvenciones recibidas, no podrá sobrepasar la cantidad del gasto señalado. |
| **Hamargarrena:** Diru laguntzaren justifikazioa<br>Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Berdintasun Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko da.<br>Onuradunak modalitate hauen bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla: Justifikazio-kontua gastuaren frogagiriak ekarrita eta moduluka egiaztatzea.<br>Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du barne:<br>a) Diru laguntza eman zaion jarduera amaitutakoan, diru-laguntza hori zuzen erabili dela adierazten duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.<br>b) Diru laguntza emateko arrazoi diren jarduerak burutzea.<br>c) Jarduera gauzatu dela eta diru laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak epeen barruan bete direla egiaztatzea.<br>d) Tolosako Udalak egin ditzakeen finantza kontrol eta egiaztapen jarduketak onartzea.<br>e) Kontu justifikagarria dokumentu hauek osatuko dute:<br>1. Jardueren Memoria, diru-laguntza jaso duen betetako ekintzarena; diru | **Décima:** Justificación de la subvención<br>La justificación de la utilización de la subvención se realizará conforme se establece en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Tolosa y deberá presentarse en el plazo que se establezca en la convocatoria anual del Departamento de Iguadad.<br>La justificación por el/la beneficiario/a del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención, podrá revestir las siguientes modalidades: cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto y acreditación por módulos.<br>La cuenta justificativa contendrá por lo menos la siguiente información:<br>a) Una vez realizada la actividad subvencionada, documentación justificativa del adecuado uso de la subvención.<br>b) Ejecución de las actividades objeto de la subvención.<br>c) Justificación de la realización de la actividad y del cumplimiento de las condiciones dentro del plazo establecido.<br>d) Aceptación de las actividades de control financiero y certificación que pueda realizar el Ayuntamiento de Tolosa.<br>e) La cuenta justificativa contendrá los siguientes documentos:<br>1. Memoria de actividades de la actividad subvencionada realizada, incluyendo |

| | |
|---|---|
| laguntzarekin finantzatutako jardueren azalpen xehatua eta kostua jaso beharko ditu. Aurkezteko epea: asko jota, hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.<br>Memoriak, gutxienez, atal hauek izango ditu:<br>- Programaren edo proiektuaren izena.<br>- Diru laguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.<br>- Programaturiko ekintzaren xehetasunak, helburuen eta lortutako ondorioen deskripzioa. Neurgarria diren heinean partaideen datuak sexuarekiko segregaturik aurkeztuko dira.<br>- Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.<br>- Finantza baliabideen zerrenda: Diru laguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste diru laguntza batekin edo onuradunen diruarekin finantzatutako beste jarduera batzuena ere.<br>- Ondorioak.<br>2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituena:<br>- Diruz lagundutako jardueren diru-sarreren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.<br>- Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituena. Gastuen zerrendak hau jasoko du:<br>- Hartzekodunaren identifikazioa<br>- Dokumentuaren identifikazioa<br>- Zenbatekoa<br>- Igorpen data<br>- Ordainketa data<br>- Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki | desglose de actividades financiadas mediante la subvención y el coste de las mismas. Plazo de presentación: como máximo, antes del 31 de enero del año siguiente.<br><br>La memoria, al menos, incluirá los siguientes apartados:<br>– Nombre del programa o proyecto.<br>– Objeto de la subvención, según presupuesto y proyecto presentado.<br><br>– Detalles de la actividad programada, describiendo objetivos y resultados obtenidos. En la medida que sea posible, los datos se presentarán disgregados por sexo.<br>– Cambios en el desarrollo del proyecto o actividad.<br>– Relación de recursos de financiación: descripción de las actividades financiadas mediante la subvención, incluyendo su coste, y de otras actividades financiadas mediante otras subvenciones o recursos del/la beneficiario/a.<br>– Conclusiones.<br>2. Una memoria económica de justificación de los costes de la actividad realizada, que comprenderá lo siguiente:<br>- Balance de ingresos y gastos de la actividad subvencionada, firmado por el/la secretario/a de la entidad y con el sello correspondiente.<br>- Relación clasificada y secuenciada por importes de los gastos e ingresos, organizada por conceptos, y que refleje la totalidad de los resultados. La relación de gastos incluirá lo siguiente:<br>- Identificación del/a acreedor/a<br>- Identificación del documento<br>- Importe<br>- Fecha de envío<br>- Fecha de pago<br><br>- Facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico |

| | |
|---|---|
| eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuei itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuradunean geratuko dira gutxienez lau urtez. | jurídico mercantil o con eficacia administrativa, incluidos en la relación citada en el párrafo anterior, y, en su caso, documento que acredite el pago. Se presentarán fotocopias compulsadas de dichos documentos, que deberán ser corroboradas por el servicio gestor; a continuación, serán devueltas a las personas interesadas. Los documentos originales o las copias compulsadas quedarán en manos de la entidad beneficiaria por un plazo de al menos cuatro años. |
| - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz. | - Relación detallada de los ingresos y las subvenciones que han financiado la actividad subvencionada, indicando importes y orígenes. |
| Aurreko guztiaz gain, gastuei dagokienez eskakizun hauek ere bete beharko dira: | Además de lo anterior, en lo que respecta a los gastos, deberán cumplirse los siguientes requisitos: |
| - Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: lan kontratuen kopiak, hartzaileek sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzan kotizatu izanaren ziurtagiriak. | – Deberán presentarse los siguientes documentos para poder justificar los gastos de personal a modo de gastos por salario: copias de los contratos de trabajo, nóminas pagadas a los/las acreedores/as y firmadas por aquellos/as o, en su caso, impreso de abono bancario y certificado de cotización a la Seguridad Social. |
| 3. Balioespen txostena udal langile-teknikari eskudunek idatzitakoa; dokumentuan argi azalduko da diru laguntzaren objektua erabat bete dela, edo justifikazioa onartu ezin duten gabeziak edo egoerak daudela. Inbertsioetarako diru laguntzen kasuan, egindako egiaztapen materialaren emaitza jasotzen duen akta edo txostena. | 3. Informe valorativo redactado por el/la técnico/a municipal competente, que refleje el total cumplimiento del objetivo de la subvención o la existencia de carencias o situaciones injustificables. En el caso de subvenciones a la inversión, acta o informe que refleje el resultado de la comprobación material. |
| **Hamaikagarrena**: Diru-laguntzen ordainketa | **Decimoprimera**: Abono de las subvenciones |
| Diru-laguntzen abonua Tolosako Udaleko Ordenantza arautzailean ezarritakoari jarraiki egingo da. | El abono de las subvenciones se hará de acuerdo con lo establecido en la Ordenanza Reguladora del Ayuntamiento |
| Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo- | |

| | |
|---|---|
| entrega moduan, diru-laguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa,<br>Nolanahi ere, azken zatiaren ordainketa egindako gastuaren justifikazioaren baldintzapean geratuko da.<br>Diru-laguntzaren ordainketa ezingo da egin pertsona edo erakunde onuradunak zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituen artean edo itzulera- bidezkotasuneko ebazpenez zordun den artean.<br><br>**Hamabigarrena:** Publizitatea<br>Emandako diru-laguntzen zerrenda, pertsona onuradunak eta beren zenbatekoak adierazita, Udalaren web orrian eta udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira.<br>Diru-laguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du eta ezin izango dituzte hizkera eta irudiak sexistak erabili.<br>Publizitate horretan Tolosako Udaleko Berdintasun departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektroniko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.<br><br>**Hamahirugarrena.** Araudia<br>Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako | de Tolosa.<br>Se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.<br><br>En cualquier caso, el abono de la parte final quedará condicionado a la justificación del gasto realizado.<br>No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad o persona beneficiaria no se halle al corriente de sus obligaciones tributarias, de las de la Seguridad Social o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro.<br><br>**Decimosegunda:** Publicidad<br>La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios municipal.<br>El/la beneficiario/a de subvenciones deberá dar publicidad al carácter público de la financiación del programa, actividad, inversión o actuación de cualquier tipo que sea objeto de subvención. En la publicidad se evitará el uso de lenguaje e imágenes sexistas.<br>En dicha publicidad deberá obligatoriamente incluirse la imagen institucional del departamento de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.<br><br>**Decimotercera.** Normativa<br>En todo lo no previsto en las presentes bases específicas se aplicará lo siguiente: la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); 4/2005 Legea, otsailaren 18an Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta Tolosako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea. | General de Subvenciones (BOE 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (BOE 25 de julio); la ley 4/2005, de 18 de febrero, sobre la igualdad entre mujeres y hombres, y la Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Autónomos. |